Epaimahaiak, aurkeztutako hautagai-kopurua eta ezagupen-maila ikusi ostean, lurralde bakoitzean ariketa hori gainditzeko gutxienezko puntu-kopurua erabakiko du eta erabakia iragarriko du. Gutxienezko puntuazio hori ez da izango, inolaz ere, 50 puntutik beherakoa izango. Epaimahaiak finkatutako gutxienezko puntuazioa lortzen ez duten oposiziogileak gainditu gabekotzat joko dira.

1.2.– Bigarren ariketa. Teoriko-praktikoa, idatzizkoa eta baztertze indarrekoa. Barne sustapenerako txandako Egitarautik ausaz ateratako hiru gaitik bat idatzi beharko du hautagaiak inolako laguntza-testurik gabe eta, gehienez ere, bi orduz; eta, ondoren, berrogei minutuz, labur eta zehazki, Epaimahaiak, barne sustapenerako txandako egitarauarekin zerikusia duen kasu praktiko bati buruzko bost galderari erantzun beharko die ematen zaion inprimakian.

Horren ostean, Epaimahaiak zehazten dituen egunetan, oposiziogileak berak jendaurrean irakurriko ditu ariketak, Epaimahai Kalifikatzaile Bakarraren edo Ordezko Epaimahaien aurrean, beren egoitzetan. Oposiziogileak ezin izatea gertatuz gero eta horrek eskatuta, berak izendatutako pertsonak edo epaimahaikide batek irakurriko ditu.

0tik 100 puntura emango dira.

Epaimahaikide bakoitzak emandako puntuaren arabera aterako da kalifikazioa, txanda irekiko bigarren ariketarako azaldutako metodologiari jarraituz. Froga gainditzeko gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.

Oposizio-aldia gainditzen dutenen azken puntuazioa, ariketa bien puntuazioa batuz aterako da.

I.B.2.– Lehiaketa-aldia.

Oposizioa-aldia gainditzen duten hautagaiak lehiaketa-aldira pasako dira: han ondoko merezimenduak balioetsiko dira:

cuestionario-test sobre las materias del Programa detallado en la Orden JUS/1295/2010, de 5 de mayo (BOE de 19 de mayo), para el acceso por promoción interna. Constará de 50 preguntas con cuatro respuestas alternativas de las cuales sólo una es la correcta.

La duración de la prueba será de 45 minutos.

Se calificará de 0 a 100 puntos.

Las preguntas acertadas se valorarán con 2 puntos; las preguntas no acertadas descontarán 0,5 puntos; las preguntas no contestadas no serán puntuadas.

La puntuación obtenida por cada aspirante se corresponderá con el número de respuestas acertadas, hecha la deducción de las no acertadas.

El Tribunal, a la vista del número y nivel de conocimientos de los aspirantes presentados decidirá cual será la puntuación mínima para superar este ejercicio en cada ámbito territorial, y hará público dicho acuerdo. Dicha puntuación mínima no podrá ser, en ningún caso, inferior a 50 puntos. Los opositores que no alcancen la puntuación mínima fijada por el Tribunal tendrán la consideración de suspensos y no serán convocados a la lectura del segundo ejercicio.

1.2.– Segundo ejercicio. De carácter teórico-práctico, escrito y eliminatorio. Consistirá en redactar sin ayuda de texto alguno y durante un máximo de dos horas un tema, elegido por el aspirante entre tres sacados a la suerte de entre los del Programa para el turno de promoción interna y a continuación, en el plazo de 40 minutos, contestar de forma breve y concisa en el impreso que será facilitado, a cinco preguntas que el Tribunal formulará referidas a un caso práctico, relacionado también con el programa para el turno de promoción interna.

Posteriormente, y en las fechas que el Tribunal señalará, los ejercicios serán leídos por el opositor ante el Tribunal Calificador único o los Tribunales Delegados en sus respectivas sedes, en sesión pública. En caso de imposibilidad del opositor, y a su ruego, serán leídos por la persona que designe, o por un miembro del Tribunal.

Se puntuará de 0 a 100 puntos.

La calificación del ejercicio se efectuará por asignación de puntos por cada miembro del Tribunal según la metodología expuesta para el segundo ejercicio del turno libre. La puntuación mínima para superar la prueba será de 50 puntos.

La puntuación final de los aprobados en la fase de oposición estará compuesta por la suma de las puntuaciones de ambos ejercicios.

I.B.2.– Fase de concurso.

Sólo los opositores que superen la fase de oposición pasarán a la fase de concurso en que se valorarán los siguientes méritos:

Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko lehiaketa-aldirako baremoa, barne sustapenerako txanda.

A) Titulu eta maila akademikoak. Gehienez, 12 puntu.

Zuzenbideko lizentziatura edo gradua: 12 puntu.

Zuzenbidea ez den beste lizentziaturak edo graduak: 10 puntu.

Zuzenbideko Lizentziaturaren lehenengo hiru maila osoak: 8 puntu.

B) Historia Profesionala. Gehienez, 7 puntu.

1.– Justizia Ministerioak edo autonomia-erkidegoetan justizia arloan eskumena duten organoek emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroetan lortutako tituluak, diplomak eta ziurtagiriak, bai eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta nazio, erkidego edo nazioarte-mailako herri administrazioen menpeko zentro edo erakunde ofizialek antolatutakoetan eskuratutakoak: gehienez 5 puntu, eta graduazio horren arabera:

Baremo para la fase de concurso de gestión procesal y administrativa, turno promoción interna.

A) Títulos y grados académicos. Puntuación máxima de 12 puntos.

Licenciatura o Grado en Derecho: 12 puntos.

Otras Licenciaturas o Grados distintos a Derecho: 10 puntos.

Tres primeros cursos completos de la Licenciatura en Derecho: 8 puntos.

B) Historial Profesional. Puntuación máxima de 7 puntos.

1.– Títulos, Diplomas, Certificaciones que acrediten conocimientos jurídicos obtenidos en cursos de formación convocados, impartidos u homologados por el Ministerio de Justicia, u órganos competentes en materia de Justicia de las Comunidades Autónomas; así como los organizados por el Consejo General del Poder Judicial, y por centros o instituciones oficiales dependientes de las Administraciones Públicas de ámbito nacional, autonómico o internacional, hasta un máximo total de 5 puntos, según la graduación siguiente:

Ikastaroaren ordu-kopurua	Aprobetxamendua egiaztatzen badu	Aprobetxamendurik egiaztatzen ez badu
11tik 29ra bitartean	1,00	0,50
30etik 59ra bitartean	1,50	0,75
60tik 99ra bitartean	2,00	1,00
100ekoak edo gehiagokoak	3,00	1,50

Horas del curso	*Si acredita aprovechamiento*	*Si no acredita aprovechamiento*
De 11 a 29	*1,00*	*0,50*
De 30 a 59	*1,50*	*0,75*
De 60 a 99	*2,00*	*1,00*
De 100 o más	*3,00*	*1,50*

Ikastorduak jasotzen ez dituzten ikastaro, egiaztagiri edo diplomak ez dira balioetsiko, ez eta 10 ordukoak edo gutxiagokoak ere.

2.– Zentro ofizialetan edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak aitortutako zentroetan bai eta herri-administrazioen menpeko erakunde edo instituzioek ere informatika-arloan emandako trebakuntza-ikastaroetan lortutako titulu, diploma eta ziurtagiriak: gehienez 2 puntu, ondoko graduazioaren arabera:

Los cursos, certificaciones o diplomas en los que no conste el número de horas y aquellos de 10 o menos horas lectivas no se valorarán.

2.– Títulos, Diplomas, Certificaciones que acrediten conocimientos informáticos, obtenidos en Cursos de formación impartidos en centros Oficiales o reconocidos por el Ministerio de Educación y Ciencia, así como los impartidos por organismos e instituciones oficiales dependientes de las Administraciones públicas o incluidas en los planes de formación de las mismas: hasta un máximo de 2 puntos según la graduación siguiente:

Ikastaroaren ordu-kopurua	Aprobetxamendua egiaztatzen badu	Aprobetxamendurik egiaztatzen ez badu
6tik 29ra bitartean	0,75	0,30
30etik 59ra bitartean	1,00	0,50
60tik 99ra bitartean	1,50	0,75
100ekoak edo gehiagokoak	2,00	1,00

Horas del curso	*Si acredita aprovechamiento*	*Si no acredita aprovechamiento*
De 6 a 29	*0,75*	*0,30*
De 30 a 59	*1,00*	*0,50*
De 60 a 99	*1,50*	*0,75*
De 100 o más	*2,00*	*1,00*

Antzeko edukia edo eduki bera duten ikastaroak behin bakarrik balioetsiko dira. Ikastorduak jasotzen ez dituzten ikastaro, egiaztagiri edo diplomak ez dira balioetsiko, ez eta 5 ordukoak edo gutxiagokoak ere.

C) Atzerriko hizkuntzak jakitea.

Zentro ofizialek emandako homologazio-ziurtagiria balioetsiko da, lortutako jakite-mailari buruzkoa. Oinarrizko maila: 0,5 puntu; erdiko maila: puntu 1 eta maila aurreratua: 1,5 puntu.

Kontzeptu honengatik gehienez 2 puntu emango dira guztira.

D) Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan sartzeko edozein txandatan (txanda irekikoak nahiz barne sustapenekoak), azken bi deialdietan, oposizioko ariketak gainditu izanagatik: 8 puntu gehienez.

Gainditutako ariketa bakoitzeko (lehenengoa, bigarrena edo hirugarrena): 2 puntu.

E) Justiziako Administrazio Kidegoetan eta/edo beste herri-administrazioetako kidegoetan edo lankontratuko langile moduan egindako zerbitzuengatik: gehienez 21 puntu.

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan (lehen Justizia Administrazioko Ofizialen Kidegoa) ordezko edo bitarteko langile modura lan egindako hilabete bakoitzeko, edo Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoan (lehen Justiziako Administrazio Laguntzaileen Kidegoa) titular, bitarteko langile edo ordezko modura lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,18 puntu.

Justizia Administrazioen, Idazkari Judizialen edo Epaileen edo Fiskalen zerbitzupeko kidego edo eskala orokorretan lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,1 puntu.

Beste herri-administrazioetako kidegoetan edo lan-kontratuko langile moduan lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,05 puntu.

Hilabetetik beherako aldiak ez dira zenbatuko.

I-C.– Euskal Autonomia-erkidegoko zuzenbide zibil berezia edo foru zuzenbidea eta autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialen ezagupena balioestea.

(Txanda irekiko eta barne sustapeneko sarbideak).

1.– Autonomia-erkidegoetako berariazko hizkuntza ofizialen ezagupenak.

Los cursos de igual o similar contenido sólo se valorarán una vez, Los cursos, certificaciones o Diplomas en que no conste el número de horas y aquellos de 5 o menos horas lectivas no se valorarán.

C) Conocimiento de Idiomas extranjeros.

Se valorará la acreditación mediante certificación de homologación emitida por Centros Oficiales, del nivel de conocimiento alcanzado. Conocimiento de nivel básico: 0,5 puntos; de nivel intermedio: 1 punto y de nivel avanzado: 1,5 puntos.

La puntuación máxima total por este concepto será de 2 puntos.

D) Por haber aprobado ejercicios de la oposición, por cualquiera de los turnos, libre o promoción interna, de acceso al Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa en las últimas dos onvocatorias, hasta un total de ocho puntos.

Por cada uno de los ejercicios aprobados (primero, segundo o tercero) 2 puntos.

E) Servicios prestados como titular o interino en los Cuerpos de la Administración de Justicia y o en Cuerpos de otras Administraciones públicas o como personal laboral (hasta un máximo de 21 puntos).

Por cada mes completo de servicios prestados como sustituto o interino, en el Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, (antes de Oficiales de la Administración de Justicia), o como titular, interino o sustituto en Tramitación Procesal y Administrativa, (antes Auxiliares de la administración de Justicia): 0,18 puntos.

Por cada mes de servicios prestados en los demás Cuerpos o Escalas generales al Servicio de la Administración de Justicia, en el de Secretarios Judiciales y en el de Jueces o Fiscales: 0,1 puntos.

Por cada mes de servicios prestados en Cuerpos de otras Administraciones públicas o como personal laboral: 0,05 puntos.

Los periodos inferiores al mes no se computarán.

I-C.– Evaluación del conocimiento de las lenguas oficiales propias de las comunidades autónomas y del derecho civil, especial o foral de la comunidad autonoma del pais vasco.

(Accesos de Turno Libre y Promoción Interna)

1.– Conocimientos de las lenguas oficiales propias de las comunidades autonomas.

Berariazko hizkuntza ofizialak dituzten autonomia-erkidegoei dagozkien lurralde-eremuetako batean aurkezten diren oposiziogileentzat, baldin eta esku hartzeko eskabidean hala adierazi badute, oposizio-eta lehiaketa-aldiak amaitu ondoren eta lanpostua lortu duten onartutakoen zerrendak finkatu ondoren, autonomia-erkidegoetako berariazko hizkuntza ofizialen ezagupena balioetsiko da. Behar den moduan kasuan kasuko autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialaren egiaztagiria aurkeztea edo ezagutza-maila neurtuko duen proba bat egitea izango da balioespena.

Autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialaren ezagupena balioesteko puntuazioa dagokion autonomia-erkidegoaren esparruan baino ez da aplikatuko, hautagaia aurkezten den lurraldearen barruan onartutakoen zerrendan zenbakia jartzeko soil-soilik. Hori dela eta, puntuazio hori nahitaezko ariketa bietan jasotakoaz bananduta jarri beharko da.

Gehienez 18 puntu emango dira, hautagaiak erakutsitako ezagupen-mailaren arabera eta ondoren adierazten diren balorazio-irizpideei jarraituz:

Kataluniako Autonomia-erkidegoaren esparruan:

B mailaren egiaztagiria: sei puntu.

C mailaren egiaztagiria: hamabi puntu.

D mailaren egiaztagiria: hamazortzi puntu.

Hizkuntza Politikako Idazkaritzaren egiaztagiriak edo Kataluniako Generalitateko Lehendakaritza-Sailaren uztailaren 21eko PRE 228/2004 Aginduan ezarritakoari jarraituz baliokideak diren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira hizkuntza-ezagupena egiaztatzeko.

Galiziako Autonomia-erkidegoaren esparruan:

Celga 4 ziurtagiria edo antzekoa: sei puntu.

Hizkuntza Juridikoaren Erdi Mailako Kurtsoa: hamabi puntu.

Hizkera Juridikoaren Goi Mailako Kurtsoa: hamazortzi puntu.

Hizkuntza Politikako Idazkaritzaren egiaztagiriak edo Galiziako Lehendakaritza, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren 2007ko uztailaren 16ko Aginduan (2007-07-30eko DOG) eta 2005eko apirilaren 1eko Aginduan (2005-04-14ko DOG) ezarritakoari jarraituz baliokideak diren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira hizkuntza-ezagupena egiaztatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatean:

Euskararen abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5. artikuluan zehaztutako gune euskaldunean eta mistoan:

Para los opositores que concurran por alguno de los ámbitos territoriales correspondientes a Comunidades Autónomas con lengua oficial propia y que así lo hubieran hecho constar en su solicitud de participación, finalizadas tanto la fase de oposición, como en su caso, la de concurso y establecidas las listas de aprobados que hubieran obtenido plaza, se procederá a la evaluación del conocimiento de las lenguas oficiales propias de las Comunidades Autónomas. La evaluación consistirá, en la acreditación del conocimiento de la lengua oficial de dicha Comunidad, mediante las certificaciones que hayan presentado oportunamente o por la realización de una prueba de nivel de conocimientos.

La puntuación de la valoración del conocimiento de la lengua oficial de Comunidad Autónoma sólo será aplicable en el ámbito de la Comunidad Autónoma respectiva a los solos efectos de establecer el número en la relación de aprobados dentro del ámbito territorial por el que concurre el aspirante, por lo que deberá reflejarse separada de la obtenida en los dos ejercicios obligatorios.

Se calificará con un máximo de 18 puntos de acuerdo con el nivel de conocimientos demostrado por el aspirante y los criterios de valoración establecidos a continuación:

En el ámbito de la Comunidad Autónoma de Cataluña:

Certificado de Nivel B: seis puntos

Certificado de Nivel C: doce puntos

Certificado de Nivel D: dieciocho puntos

La acreditación del conocimiento de idioma se efectuará mediante la aportación de los certificados de la Secretaría de Política Lingüística o los equivalentes según la Orden PRE 228/2004 de 21 de julio del Departamento de la Presidencia de la Generalitat de Catalunya.

En el ámbito de la Comunidad Autónoma de Galicia:

Certificado Celga 4 o similar: seis puntos.

Curso de Lenguaje Jurídico Medio: doce puntos

Curso de Lenguaje Jurídico Superior: dieciocho puntos.

La acreditación del conocimiento de idioma se efectuará mediante la aportación de los certificados de la Secretaría General de Política Lingüística o los equivalentes según la Orden de 16 de julio de 2007, de la Consellería de Presidencia, Administraciones Públicas y Xustiza (DOG 30-07-2007) y Orden de 1 de abril de 2005 (DOG 14-04-2005).

En el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra:

En las zonas vascófona y mixta que determina el artículo 5 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vascuence:

Hizkuntzei buruzko Europako esparru komunaren A2 edo B1 mailen jabetzaren ziurtagiria, edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan lau urrats gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria. Sei puntu.

Hizkuntzei buruzko Europako esparru komunaren B2 mailaren jabetzaren ziurtagiria, edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan zortzi urrats gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria. Hamabi puntu.

EGAren edo Hizkuntzei buruzko Europako esparru komunaren C1 mailaren antzeko beste titulazio baten jabetzaren ziurtagiria, edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan hamabi urrats gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria. Hamazortzi puntu.

Euskal Autonomia-erkidegoan:

Euskal Autonomia-erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera:

2. hizkuntza–eskakizuna: sei puntu.

3. hizkuntza–eskakizuna: hamabi puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna: hamazortzi puntu.

Valentziako Autonomia-erkidegoan:

Ahoz eta idatziz valentzieraren oinarrizko mailaren egiaztagiria: sei puntu.

Ahoz eta idatziz valentzieraren erdiko mailaren egiaztagiria: hamabi puntu.

Ahoz eta idatziz valentzieraren goiko mailaren egiaztagiria: hamazortzi puntu.

2.– Euskal Autonomia-erkidegoko zuzenbide zibil, berezi edo foralaren ezagupen-balioespena.

Euskal Autonomia-erkidegoko lurralde-eremuan aurkezten diren hautagaiei, baldin eta beren eskabidean hala adierazi badute, lehengo paragrafoan zehaztu den modu eta ondorio berberekin ebaluatuko zaizkie Euskal Autonomia-erkidegoko zuzenbide zibil, berezi eta foralari buruzko ezagupenak. Kontzeptu horrengatik gehienez sei puntu emango zaizkie, nahitaezko ariketetan lortutako puntuaziotik aparte azalduko direnak eta Euskal Autonomia-erkidegoko lurralde-eremuan lehentasun-hurrenkera ezartzeko baino ez dira erabiliko.

Balorazio-irizpideak:

A) Hauxe da agiri bidezko egiaztapena hautatzen duten oposiziogileentzako dokumentazio baliagarria:

Certificado de posesión de los niveles A2 o B1 del Marco común europeo de referencia para las lenguas, o de haber superado cuatro «urrats» en los cursos organizados por el Gobierno de Navarra: seis puntos.

Certificado de posesión del nivel B2 del Marco común europeo de referencia para las lenguas, o de haber superado ocho «urrats» en los cursos organizados por el Gobierno de Navarra: doce.

Certificado de posesión del título EGA o de otra titulación equivalente al nivel C1 del Marco común europeo de referencia para las lenguas, o de haber superado doce «urrats» en los cursos organizados por el Gobierno de Navarra: dieciocho puntos.

En el ámbito del País Vasco:

De acuerdo a lo establecido en el Real Decreto 86/1997, de 15 de abril por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Perfil lingüístico 2: seis puntos.

Perfil lingüístico 3: doce puntos.

Perfil lingüístico 4: dieciocho puntos.

En el ámbito de la Comunidad Autónoma Valenciana:

Certificado de grado elemental oral y escrito del valenciano: seis puntos

Certificado de grado medio oral y escrito del valenciano: doce puntos.

Certificado de grado superior oral y escrito del valenciano: dieciocho puntos.

2.– Evaluación de los conocimientos del derecho civil, especial o foral de la comunidad autónoma del país vasco.

Para los aspirantes que concurran por el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que así lo hubieran hecho constar en su solicitud, se procederá, en los mismos términos y con los mismos efectos que se han detallado en el apartado anterior, a la evaluación de sus conocimientos del Derecho Civil especial y foral del País Vasco, otorgándose por este concepto seis puntos, que se reflejarán en todo caso separados de los obtenidos en los ejercicios obligatorios y sólo surtirán efectos para establecer el orden de prelación dentro del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

Criterios de Valoración:

A) La documentación válida para aquellos opositores que opten por la acreditación documental, es la siguiente:

1.– Zuzenbideko lizentziatura, honako irakasgai hauekin:

a) Euskal Autonomia-erkidegoko Foru eta Autonomia Zuzenbidea

I. DU, 1953ko Plana: 90 ordu

II. DU, 1998ko Plana: 60 ordu

b) Euskal Autonomia-erkidegoko Foru Zuzenbide Zibila, 1

I. DU, 1993ko Plana: 30 ordu

2.– Euskal Autonomia-erkidegoko Foru eta Autonomia Zuzenbideko Masterra: 540 ordu (54 kreditu).

3.– Euskal Autonomia-erkidegoko Foru Zuzenbidearen espezializazio-diploma, presentziala:

220 ordu (22 kreditu).

4.– Euskal Autonomia-erkidegoko Foru Zuzenbidearen espezializazio-diploma, on line: 210 ordu (21 kreditu).

5.– Zuzenbideko doktoregoa: (gutxienez 60 ordu: 6 kreditu).

Zuzenbideko doktore-titulua, Euskal Autonomia-erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilaren gaineko tesiarekin.

Zuzenbideko doktorego-ikastaroak, Euskal Autonomia-erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoak.

B) Azterketa egitea erabakitzen duten oposiziogileentzat, hauxe izango da azterketa: 40 galderako test motako galdetegi bati erantzutea, lau erantzun eskainiz, lau horietako bakarra zuzena delarik.

Asmatutako erantzun bakoitzarengatik puntu bat emango da. Erantzun okerrak edo erantzun gabeko galderak puntuatu gabe geratuko dira. Ariketa gainditzeko, gutxienez 20 puntu lortu beharko dira.

Galdetegia honako gai hauei buruzkoa izango da:

Azterketarako gaiak.

1.– Euskal Autonomia-erkidegoko Zuzenbide Zibilaren arau-esparrua eta iturriak: Euskal Autonomia-erkidegoak Foru Zuzenbide Zibil, Konstituzio eta Autonomia Estatutuaren arloan dituen eskumenak. Euskal Autonomia-erkidegoko Foru Zuzenbideari buruzko legeak. Foru Zuzenbide Zibilaren iturriak: iturri-sistema. Jurisprudentziaren eginkizuna. Ordezko zuzenbidea, aplikatzeko zehaztapena eta irizpideak. Euskal Autonomia-erkidegoko Zuzenbide Zibileko legeen izaera.

2.– Bizkaiko Foru Zibila. Lurralde-eremua: Infantzoigoa eta hiribilduak, administrazio-aldaketak eta aukeraketa-eskubidea. Eremu pertsonala: Bizkaitar forudunak eta bizkaitar forugabeak; bizkaitarren betebeharrak, bizkaitar forugabeen eskubideak. Bizkaian bizi diren atzerritarren nazionalitatea eta auzotasuna. Lege-gatazka, konpontzeko irizpideak.

1.– Licenciatura en Derecho, habiendo cursado como asignaturas:

a) Derecho Civil Foral y Autonómico del País Vasco

I. UD, Plan 1953: 90 horas

II. UD, Plan 1998: 60 horas

b) Derecho Civil Foral del País Vasco 1

I. UD, Plan 1993: 30 horas

2.– Master en Derecho Civil Foral y Autonómico del País Vasco: 540 horas (54 créditos).

3.– Diploma de especialización en Derecho Civil Foral del País Vasco-presencial:

220 horas (22 créditos).

4.– Diploma de especialización en Derecho Civil Vasco-on line-: 210 horas (21 créditos).

5.– Doctorado en Derecho: (mínimo 60 horas: 6 créditos).

Título de doctor en Derecho, con tesis sobre Derecho Civil Foral del País Vasco.

Cursos de doctorado en Derecho sobre Derecho Civil Foral del País Vasco.

B) Para aquellos opositores que opten por realizar el examen, este consistirá en la contestación a un cuestionario tipo-test de 40 preguntas con cuatro respuestas alternativas de las cuales sólo una es correcta.

Las respuestas acertadas se valorarán con 1 punto. Las respuestas incorrectas o las preguntas no contestadas no serán puntuadas. Para superar el ejercicio es preciso obtener un mínimo de 20 puntos.

El cuestionario versará sobre el temario siguiente:

Temario para examen.

1.– Marco normativo y Fuentes del Derecho Civil Foral del País Vasco: Competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Derecho Civil Foral, Constitución y Estatuto de Autonomía. Leyes sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco. Fuentes del Derecho Civil Foral; sistema de fuentes. El papel de la Jurisprudencia. El derecho supletorio, determinación y criterios para su aplicación. Naturaleza de las leyes del Derecho Civil Foral Vasco.

2.– Fuero Civil de Bizkaia. Ámbito territorial: el Infanzonado y las villas, las modificaciones administrativas y el derecho de opción. Ámbito personal: Vizcaínos aforados y vizcaínos no aforados; obligaciones de los vizcaínos, derechos de los vizcaínos no aforados. Nacionalidad y vecindad de los extranjeros en Bizkaia. Conflictos de leyes, criterios de resolución.

3.– Bizkaiko Foru Zibila. Tronkalekotasuna: Tronkalekotasunaren helburua. Tronkaleko senitartekoak. Tronkaleko ondasunak. Tronkalekotasunaren eskubideak eta betebeharrak. Auzotasun zibila eta tronkalekotasuna. Oinordetza behartua: legitimoa eta senipartedunak; baztertzea eta preterizioa. Legitimoaren zenbatekoa eta kalkulua. Tronkalekoen eskubideak, oinordetza-hurrenkera.

4.– Bizkaiko Foru Zibila. Testamentuzko oinordetza: Euskal Autonomia-erkidegoko Zuzenbide Zibilean onartutako testamentu motak. Hil-buruko motako testamentua. Testamentu mankomunatua. Testamentuzko oinordetza. Testamenturako ahalmena: definizioa; «alkar ahalmentsua». Komisario izendatzeko betebeharrak. Ahalmena desagertzeko arrazoiak. Komisarioak egindako testamentua: Komisarioak egindako lana, epeak eta baldintzak. Komisarioaren eskubideak eta ahalmenak. Komisarioaren betebeharrak. Ezkontide-komisarioa.

5.– Bizkaiko Foru Zibila. «ab intestato» oinordetza: Lehentasun-hurrenkera; ordezkaritza-eskabidea. Tronkaleko ondasunak eta tronkalekoak ez direnak. Oinordetza-itunak: Oinordetza-ituna lortzeko tresnak. Motak: Orainaldiko eraginkortasuna, post mortemeko eraginkortasuna. Oinordetza-ituna ezeztatzea; arrazoiak. Oinordetza-ituna amaitzea; arrazoiak. Ezartzaileari itzultzea; arrazoiak. Erreserbak eta itzulketak: erreserbagileak; aurreko ahaideak; gurasoak; ezkontideak. Erreserba-hartzaileak. Erreserba daitezkeen ondasunak. Itzulketak; aurreko ahaideen aldekoak; dohaintza-emailearen aldekoa.

6.– Bizkaiko Foru Zibila. Ezkontzako erregimen ekonomikoa: Ezartzea eta aldatzea. Ordezko legeerregimena, eta erregimen hori zehazteko arauak. Foru komunikazioa: Jaiotza eta sendotzea. Ezkondu bitarteko ondasunak gobernatzea; onartzeko dauden jaraunspenak. Xedatze-egintzak, ezkontide batek ezetz esaten badu. Senar-emazteen zorrak, zorrik gabeko ezkontidearen kasua. Foru komunikazioa desegitea. Sendotzea; betebeharrak; komisarioa den ezkontide alargunaren kasua; adierazitako ondasunak esleitzea. Ondorengo komunik gabeko heriotzarengatiko desegitea; ondorioak; ezkontide alargun arrotzaren eskubideak. Erregimen ekonomikoaren desegitea eragiten duten beste arrazoi batzuk.

7.– Bizkaiko Foru Zibila. Lehentasunezko erosketarako eskubideak: senipartea jasotakoak, lehiaketa eta lehentasun-hurrenkera; zein ondasunetan ezartzen den; deialdiak, edukia, modua eta publizitatea; senidea agertzea edo ez agertzea; ondasun higiezinen balioespena. Foru-saka: bidezkoa den kasuak; erabiltzeko modua eta epea; higiezinen balioespena, ezartzeko eta ordaintzeko prozedura. Bide-zorrak: erosketa. Lur-sail nagusia eta bere eskubideak.

8.– Arabako Foru Zibila. Lurralde-eremua: Aiara; egin litezkeen administrazio-aldaketak zehaztu eta

3.– Fuero Civil de Bizkaia. La Troncalidad: Objeto de la troncalidad. Los parientes tronqueros. Los bienes troncales. Derechos y obligaciones de la troncalidad. Vecindad civil y troncalidad. Sucesión forzosa: Legítima y legitimarios; el apartamiento y la preterición. Cuantía y cálculo de la legítima. Derechos de los tronqueros, orden de suceder.

4.– Fuero Civil de Bizkaia. Sucesión testada: Formas testamentarias admitidas en el Derecho Civil Foral del País Vasco. El testamento «hil-buruko». El testamento mancomunado. Sucesión testada. El poder testatorio: Definición; el «alkar poderoso». Requisitos para el nombramiento de comisario. Causas de extinción del poder. El testamento por comisario: Desempeño del cargo por el comisario, plazo y condiciones. Derechos y facultades del comisario. Obligaciones del comisario. Cónyuge-comisario.

5.– Fuero Civil de Bizkaia. Sucesión «ab intestato»: Orden de prelación; el derecho de representación. Bienes troncales y no troncales. Los Pactos sucesorios: Instrumentos para el otorgamiento del pacto sucesorio. Clases: eficacia de presente, eficacia post mortem. Revocación del pacto sucesorio; causas. Resolución del pacto sucesorio; causas. Reversión al instituyente; causas. Reservas y reversiones: Reservistas; ascendientes; padres; cónyuge. Reservatarios. Bienes reservables. Reversiones; a favor de ascendientes; a favor de donante.

6.– Fuero Civil de Bizkaia. Régimen económico matrimonial: Fijación y variación. Régimen legal supletorio, y reglas para su determinación. Comunicación foral: nacimiento y consolidación. Administración de los bienes constante matrimonio; las herencias pendientes de aceptación. Actos de disposición, el caso de la negativa de uno de los consortes. Deudas del matrimonio, el caso del consorte no deudor. Disolución de la comunicación foral. Consolidación; requisitos; el caso del cónyuge viudo comisario; adjudicación de los bienes comunicados. Disolución por fallecimiento sin descendientes comunes; efectos; los derechos del cónyuge viudo adventicio. Otras causas de extinción del régimen económico.

7.– Fuero Civil de Bizkaia. Derechos de adquisición preferente: Legitimados, concurrencia y orden de prelación; bienes sobre los que recae; los llamamientos, contenido, forma y publicidad; Comparecencia y falta de comparecencia del pariente; la valoración de los inmuebles. Saca foral: Casos en que procede; forma y plazo para su ejercicio; valoración de los inmuebles, procedimiento para su fijación y el pago. Servidumbres de paso: Adquisición. El predio dominante y sus derechos.

8.– Fuero Civil de Álava. Ámbito territorial: Ayala; determinación y regulación de las posibles modi-

arautzea. Laudio eta Aramaio. Eremu pertsonala: Aiarako oinordetza-erregimena. «gozamen ahalmentsua».

9.– Gipuzkoako Foru Zibila. Lurralde eremua, eta eremu pertsonala eta funtzionala. Heriotza delaeta xedapen-askatasunak dituen mugak. Ezkontide alargunaren eskubideak; onuradunen betebeharrak; destinorako mugak; ez-betetzeak eta ondorioak. Komisarioak baserriaren oinordetzaren ordenazioa egitea: Komisarioa izendatzea; eta hori emateko tresnak. Karguan jardutea; komisarioaren eginkizunak; jardueraren ondorioak; era eta epea. Testamentu-ahalmena desegitea. Baserriak testamentu mankomunatuaren arabera antolatzea: Senipartea jasotakoak. Testamentuaren moldea. Testamentu mankomunatuaren xedapenen eraginkortasunik eza; arrazoiak. Testamentu mankomunatua aldatzea eta ezeztatzea; eraginkortasuna eta era; ezkontza desegitea. Baserria oinordetza-itunaren bidez antolatzea: emateko tresnak. Oinordetza-itunaren ondorioak. Oinordetza-ituna aldatzea; arrazoiak. Oinordetza-itun motak. Itun mota bakoitzean ezartzaileak eta ezarriak dituzten eskubideak. Elkartebizierarako ituna.

10.– Euskal Autonomia-erkidegoko izatezko bikoteak. Zer diren, eta bikote horiek eratzeko bete beharrekoak. Harrera eta adopzioa. Erregimen ekonomikoa. Oinordetza-erregimena. Desegitea; arrazoiak eta ondorioak.

ficaciones administrativas. Llodio y Aramaio. Ámbito personal. Régimen sucesorio de Ayala. El «usufructo poderoso».

9.– Fuero Civil de Gipuzkoa. Ámbitos territorial, personal y funcional. Limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte. Derechos del cónyuge viudo; obligaciones de los beneficiarios; limitación de destino; incumplimiento y efectos. Ordenación sucesoria del caserío por comisario: Nombramiento de comisario; e instrumentos para su otorgamiento. Desempeño del cargo; funciones del comisario; efectos del ejercicio; forma y plazo. Extinción de poder testatorio. Ordenación del caserío por testamento mancomunado: Legitimados. Forma del testamento. Ineficacia de las disposiciones del testamento mancomunado; causas. Modificación y revocación del testamento mancomunado; eficacia y forma; disolución del matrimonio. Ordenación del caserío mediante pacto sucesorio: Instrumentos de otorgamiento. Efectos del pacto sucesorio. Modificación del pacto sucesorio; causas. Clases de pacto sucesorio. Derechos del instituyente y del instituido en cada clase de pacto. Pacto de comunidad de vida.

10.– Parejas de hecho en la Comunidad Autónoma del País Vasco: Concepto y requisitos para su constitución. Acogimiento y adopción. Régimen económico. Régimen sucesorio. Extinción; causas y efectos.

II. ERANSKINA

.....jauna/andrea. Helbidea:.....Adina:..... NAN zenbakia: ..... Zin egiten dut Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionario izendapena jaso ahal izateko, ez nautela inongo herri administraziotako zerbitzutik banandu, ez naizela ezgaitua izan funtzio publikoetan aritzeko eta ez dudala xedapen organikoetan ezartzen diren inolako ezgaitasun eta bateraezintasunik.

.....(a)n, ...(e)ko .....ren .....a.

Adierazlea

III. ERANSKINA

ONARPEN-ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK
IRAKURRI ARRETAZ ETA BETE ONDORENGO JARRAIBIDEAK

Jarraibideak betetzen ez badituzu, zure datuak okerrak izan daitezke, agiri hau elektronikoki irakurriko baita.
Jarraibide orokorrak:
– Idatzi boligrafo beltz edo urdinez bakar bakarrik eta azalera gogor eta lauaren gainean.
– Datuak jarri baino lehen begiratu arretaz eskabidean agertzen den «karaktereen ereduari», hots, letra, zenbaki eta zeinuz osatuta dagoenari.
– Egin ikurrak (letrak, zenbakiak eta zeinuak) laukitxoen barruan eta «Ikurren Ereduari» eutsiz. Ez erabili ereduan jasotzen ez den zeinurik.
– Idatzi karaktere (letra, zenbaki edo zeinu) bat bakarrik laukitxo bakoitzean. Ez idatzi inoiz ere laukitxoen gainean. Ez idatzi inoiz ere laukitxotik kanpo.
– Idazterakoan boligrafoak ondo markatzen duela eta etengabeko marka uzten duela egiazta ezazu eta presionatu behar bezala datuak kopietan ager daitezen.
– Huts egiten baduzu ez zuzendu laukitxo berberean. Huts egindako laukitxoa bete eta ondorengo laukitxoan idatzi karaktere zuzena.
Laukitxo bat erabat bete edo idazteak karaktere bat txarto idatzi dela eta baliogabetzen dela esan nahi du. Ez ezabatu, ez zuzendu.
– Abizenak, izena, udalerri eta abarrak luzeegiak badira, saiatu mozten ulertzeko moduan. Ez laburtu lehenengo abizena. «Karaktereen ereduan agertzen diren zeinuak baino ez erabili.
– Solairuari dagokion atala (13. laukitxoa) betetzerakoan behekoa izanez gero, jarri 0.
– Telefonoari dagokion atala (18. laukitxoa) betetzerakoan, zenbakiak bakarrik idatzi; aurrizkiaren eta zenbakiaren artean ez utzi laukitxorik bete barik eta ez jarri banatzeko zeinurik.
– Zenbait hitz idatzi behar diren ataletan: izena, helbidea eta abar, utzi laukitxo bat bete barik hitzen artean.
– Zure letraz idatzi behar duzun ataletan (19. eta 28. laukitxoak), egin argi eta ulertzeko moduan. Ez atera laukitxotik idazterakoan.
– Sinatu eskabidean horretarako dagoen tokian. Ez atera laukitxotik sinatzerakoan.
– Ez tolestu «Onarpen Eskabidea» eta ez egin bertan boligrafozko orbanik.
– Ez idatzi daturik besteen gainean.
Eskabide honetan eskatzen diren zenbait daturi buruzko berariazko jarraibideak:
– Kidegoaren kodea (20. laukitxoa). Kidegoari dagokion deialdian agertzen dena.
– Minusbalituentzako erreserba (23. laukitxoa). Minusbaliatua izanez gero soilik bete beharrekoa, honako hauek kontuan hartuta: A) Deialdiaren arabera, bat edo bi izan litezke minusbaliatu-kupoak. Bakarra egonez gero, X batez markatu «minusbaliatasun orokorrerako erreserba» laukia. Eta egokitzapena ere eskatzen badu, markatu laukitxo hori ere bai. B) Minusbaliatuentzako erreserba-kuporen batean ere aurkeztu ezean, baina minusbaliatua izateagatik egokitzapena eskatu behar badu probak egiteko, markatu soilik «Egokitzapena eskatzen du» laukitxoa.
– Azterketa zein probintziatan den, eta kodea (26. eta 27. laukitxoak). Adierazi zein hiritan egin nahi den azterketa (26. laukitxoa), eta duen kodea (27. laukitxoa), deialdiak hala eskatzen badu, segidan aipatzen den bezala: Albacete 02; Bartzelona 08; Burgos 09; Caceres 10; Ceuta 51; Las Palmas 35; Logroño 26; Madril 28; Mallorca 07; Melilla 52; Murtzia 30; Oviedo 33; Iruña 31; P.G. eta B.– Madril 28; Santander 39; A Coruña 15; Sevilla 41; Tenerife 38; Valentzia 46; Valladolid 47; Gasteiz 01; Zaragoza 50.
– Ordaindu behar duena. - Ordaindu behar duenak (subjektu pasiboa) dokumentu honen aurrealdeko beheko ezkerraldean gordetako tokian jarri beharko ditu sinadura eta data.
– Ordainketaren zenbatekoa:
Jarri auto-likidazioan azterketa-eskubidearen tasari dagokion diru-zenbatekoa, deialdiaren aginduan zehaztutakoa hain zuzen ere.
– Ordaintzeko tokia. Erakunde laguntzaileetan (banketxeak, aurrezki kutxak eta kreditu-kooperatibak), non ez baita kontu irekirik izan behar, nahikoa baita, diru-sarrera egiteko, dokumentu hau aurkeztea.
– Ordaindu izanaren agiria, eta eskabidea aurkeztea:
Azterketa eskubidearen tasa ordaintzeko eskabide-eredua aurkezterakoan, eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiri modura interesdunarentzat den alea eta administrazioarentzat den alea eskatu beharko zaizkio entitate laguntzaileari. Ale hori deialdiaren oinarrian zehaztutakoari jarraituz aurkeztu beharko da.

IV. ERANSKINA

.....jauna/andrea.
Helbidea:.....Adina:.....NAN zenbakia: .....
Baimena ematen du Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoan sartzeko deialdiari dagokion hautaketa-prozesua bideratzen ari den organoak, nire datu pertsonalak kontsultatu eta egiaztatze aldera, datu horiek dituen administrazioan dauden artxiboak, datu-basea eta beste dokumentu-funtsak eskuratu ditzan, kidego horretarako hautaketa-probetan parte hartzeko eskabidea aurkeztu baitu.

.....(a)n, ...(e)ko .....ren .....a.

Adierazlea

ANEXO II

Don/Doña..... con domicilio en .... de..... años de edad, con documento nacional de identidad número....., declara bajo juramento o promesa, a efectos de ser nombrado funcionario del Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, que no ha sido separado del servicio de ninguna de las Administraciones Públicas y que no se halla inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas, ni comprendido en ninguna de las causas de incapacidad e incompatibilidad establecidas en las disposiciones legales.

En.....a.....de.....de.....

El Declarante

ANEXO III

INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACIÓN DE LA SOLICITUD DE ADMISIÓN
LEA ATENTAMENTE Y SIGA CON ATENCIÓN LAS SIGUIENTES INSTRUCCIONES

Si no sigue dichas instrucciones sus datos pueden resultar erróneos, ya que este documento va a ser leído electrónicamente
Instrucciones generales:
– Escriba solamente con bolígrafo negro o azul sobre superficie dura y lisa.
– Antes de cumplimentar sus datos, observe con detenimiento el «Modelo de caracteres» representado en la solicitud que consta de letras, números y signos.
– Haga los caracteres (letras, números y signos) en las casillas y de acuerdo con el «Modelo de caracteres». No utilice ningún signo que no conste en el modelo.
– Escriba un solo carácter (letra, número o signo) en cada casilla. No escriba nunca sobre el recuadro de las casillas. No escriba nada fuera de las casillas.
– Asegúrese, al escribir, de que el bolígrafo marque bien dejando un trazo continuo y presione lo suficiente para que los datos queden reflejados en las copias.
– Si se equivoca no borre ni corrija en la misma casilla. Rellene o recubra totalmente la casilla equivocada y escriba el carácter correcto en la casilla siguiente.
Una casilla rellenada totalmente equivale a anular el carácter mal escrito. No borre, no corrija.
– Si los Apellidos, Nombre, Municipio, etc. son excesivamente largos, procure acortarlos de manera comprensible. No abrevie el primer apellido. Utilice únicamente los signos que figuran en el «Modelo de caracteres».
– Al rellenar el apartado correspondiente al piso (casilla 13), si es bajo o entresuelo, ponga 0.
– Al rellenar el apartado correspondiente al teléfono (casilla 18), sólo escriba números; entre prefijo y número no deje casillas en blanco, ni signos de separación.
– En los apartados en los que sea preciso escribir varias palabras: Nombre, Dirección, etc. deje una casilla en blanco entre palabra y palabra.
– En los recuadros donde deba escribir con su letra (casillas 19, y 28), hágalo con letra clara y legible. No se salga del recuadro al escribir.
– No olvide firmar su solicitud en el recuadro correspondiente. No se salga del recuadro al firmar.
– No doble la «Solicitud de Admisión» ni deje manchas de bolígrafo sobre ella.
– No cumplimente unos datos sobre otros.
Instrucciones particulares sobre algunos datos que se piden en esta solicitud:
– Código del cuerpo (casilla 20). El que figura en la convocatoria correspondiente al cuerpo.
– Reserva discapacitados (casilla 23). Rellenar sólo si es discapacitado, teniendo en cuenta: A) Según la convocatoria puede haber uno o dos cupos de discapacitados. Si sólo hay uno, marque con una X solamente el recuadro «reserva discapacidad general». Y si además solicita adaptación, marque también dicho recuadro. B) Si no se presenta por ninguno de los cupos de reserva de discapacitados, pero precisa por su minusvalía solicitar adaptación para la realización de las pruebas, marque solamente el recuadro de «solicita adaptación».
– Provincia de examen y código (casillas 26 y 27). Indique la ciudad de examen elegida (casilla 26) y su código correspondiente (casilla 27), si lo pide la convocatoria, tal y como se indica a continuación: Albacete 02; Barcelona 08; Burgos 09; Cáceres 10; Ceuta 51; Las Palmas 35; Logroño 26; Madrid 28; Mallorca 07; Melilla 52; Murcia 30; Oviedo 33; Pamplona 31; R. P. y B.–Madrid 28; Santander 39; A Coruña 15; Sevilla 41; Tenerife 38; Valencia 46; Valladolid 47; Vitoria 01; Zaragoza 50.
– El obligado al pago. (Sujeto pasivo) deberá firmar y fechar en el espacio reservado para ello en la parte inferior izquierda del anverso de este documento.
– Importe del pago:
Consigne en la autoliquidación el importe de la tasa de derecho de examen, el cual viene reflejado en la orden de convocatoria.
– Lugar de pago. A través de entidades colaboradoras (Bancos, Cajas de Ahorro y Cooperativas de Crédito) en las que no es preciso tener cuenta abierta mediante la presentación de este documento de ingreso.
– Justificante del pago y presentación instancia:
Al realizar la presentación del modelo de solicitud para el ingreso de la tasa de derecho de examen, solicite de la entidad colaboradora el ejemplar destinado al interesado como justificante del pago de los derechos y el ejemplar para la administración. Este último deberá ser presentado de acuerdo con lo que indique la base de la convocatoria.

ANEXO IV

Don/Doña..... con domicilio en .... de..... años de edad, con documento nacional de identidad número....., da su consentimiento para que el órgano instructor del proceso selectivo correspondiente a la convocatoria de acceso al Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, para cuyas pruebas selectivas presenta solicitud de participación, pueda acceder para consulta y verificación de mis datos personales de identidad, a los archivos, bases de datos u otros fondos documentales obrantes en la Administración que contienen dichos datos.

En.....a.....de.....de.....

El Declarante